

DONOSTIARRAK 1845-EKO IÑAUTERIYETAN

Beti Donostiako
 Damacho, galaiak
 Gizon eta andreak
 Dibertitu nayak:
 Soñuak eta kantak
 Dira onen gayak
 Ala erakustendu
 Gure gaurko deyak.

Adiskide arrotzak
 Ditugu lagunak,
 Ageri dan bezela
 Aditzalle onak:
 Gugana etorriak,
 Galai ta gizonak
 Zuentzat on eskerrez
 Beteak diranak.

Aldebat utzirikan
 Samiñ naigabeak
 Elgarganatzen dira
 Zar eta gazteak:
 Udan eta neguan
 Arturik nekeak:
 Soñu eta kantakin
 Naikeraz beteak.

Gure biotzak daude
 Pozak zabaldurik
 Atsegiñ emateko
 Eskerrez beterik:
 Borondate gureak
 Ez dauka oberik
 Neke gai aiñ artuaz
 Ez degu damurik.

Aurten otsagillaren
 Seigarren gabean,
 Elkarganatu gera
 Donosti maitean;
 Soñu eta kantakiñ
 Umore onean
 Atsegiñ ona nairik
 Alegiñ gurean.

Erritar maite eta
 Arrotz errikoak,
 Ona gure aitormen
 Chit egiazkoak:
 Oroipen biotzeko
 Donostiakoak,
 Len, oraiñ eta beti
 Obe bagekoak.

JOSÉ VICENTE ECHEGARAY.